



Inportazioko dokumentu-sortaren zirkuitua

Inportazioko dokumentu-sortaren zirkuitua

1. Negoziatzea



- Inportatzailearen eta esportatzailearen arteko salerosketa-kontratua.
- Behar diren dokumentuak
- Prezioa
- Epeak
- Garraio-mota
- ORDAINTZEKO/KOBRATZEK O BIDEA
- Incotermak
- Beste alderdi batzuk



Inportazioko dokumentu-sortaren zirkuitua

2. Banku-zirkuitua
hastea



- Adostutako helmugara bidaliko du salgaia.
- Esportatzailearen bankuan entregatuko ditu merkataritza- eta/edo finantza-dokumentuak eta kobrantza-jarraibideak.



Inportazioko dokumentu-sortaren zirkuitua

3. Banku inportatzaileak inportatzailea jakinaren gainean jartze



- Inportatzailearen bankura bidaliko dira merkataritza-dokumentuak eta ordaintzeko jarraibideak.
- Dokumentuak eta ordaintzeko jarraibideak iritsi direla jakinaraziko dio bankuak inportatzaileari.



Inportazioko dokumentu-sortaren zirkuitua

4A. Dokumentuak ordaintzea eta entregatzea



- Inportatzaileak baimena emango du kontuan zordunketa egiteko.
- Zenbatekoa inportatzailearen kontuan zordunduko da, eta dokumentuak entregatuko dira.
- Aldi berean, inportatzailearen bankuak banku esportatzaileari itzuliko dio eragiketa, eta horrek abonua egingo du esportatzailearen kontuan.
- Eta inportatzaileak helmugako portuan jasoko du salgaia.



Inportazioko dokumentu-sortaren zirkuitua

4B. Dokumentuak onartzea eta entregatzea

- Inportatzaileak gerora ordaintzeko konpromisoa onartuko du.
- Banku inportatzaileak onarpena jaso eta dokumentuak entregatuko ditu.
- Aldi berean, inportatzailearen bankuak onarpenaren berri emango dio, SWIFT bidez, banku esportatzaileari, eta horrek esportatzaileari.
- Eta inportatzaileak helmugako portuan jasoko du salgaia.



5. Inportatzaileari zordunketa egitea eta esportatzaileari ordaintzea

- Muga-egunean, inportatzailearen bankuak zordunketa-ahalegin bat egingo du inportatzailearen kontuan.
- Saldorik badago, inportatzailearen bankuak banku esportatzaileari itzuliko dio eragiketa, eta horrek abonua egingo du esportatzailearen kontuan.

